



# AXUN IGARTUA AMESTOI

*San Anton kaleko bere jaixotetxera jo dogu Axunen billa eta han topau dogu sukalde epelian zain. Iraillaren 12xan 92 urte beteko dittuan arren, burua argi, umore ederra eta barriketarako gogua erakutsi dosku eta majo pasau dogu illunkaraxua lehengo eta oraingo kontuak harrotuz.*

**- San Anton kalia bertan jaixotakua zara?**

Bai, hementxe jaixo, hementxe hazi eta hementxe bizi.

**- Zure bigarren apellidua ez da Oñatikua, nungua zan ba zuen ama?**

Oñatikua; haren aitta zonan naparra, napar-euskalduna, gaztetan Lizaraga aldetik hona etorritakua.

**- Zenbat senide izan ziñain?**

Zortzi izan gintzonan, sei mutil eta bi neska, eta bi besterik ezkaittun bizi: ni, laugarrena, eta Markel, gaztiena.

**- Eskolan, nun ibilli ziñan?**

Eskolia noiz ikasi ete xonagu? Pittin bat gaueskolan. Baiña ezkaittun galdu, eh! ezta erderiarekin be!

**- Gaueskolia esan dozu?**

Bai; hiru edo lau negutan illunkaratan faten gintzonan neskatilla kuadrilla bat Kanpantxora, hospitaleko Dolores han bizi izan zanian, berarekin eskolak ikastera. Baiña, hori baiño lehenago hospittalian be ibilli gintzonan zerbait ikasi guran sor Paulina eta Doloresekin.

**- Zela ikasten zebein, euskeraz ala erderaz?**

Dotriña euskeraz, beste dana erderaz.



**- Dotriña euskaraz?**

Bai, bai; eta gaiñera ez zuen moduan liburutik eta hola; ez, guk konpasia ikasten giñonan. Eta gero, etxian ikasitakua errezaiteko ainketan oskuenian kantuan egin bihar,

**P**eska-saltzen hasi nintzanean, burro izeneko peskiari liba jarri bihar izan gitxanan, beste-la jentia etxonan erosten.

batutiaz ikasitakuak gintzonan eta.

**- Eta egunez ze egitten zebein?**

Umiak zainttu, pezeta bategatik auskalo nundik nora ibilitta. Eta oso gazterik Garañera fan nintzonan lanera. Guardasolak egitten hasi zan 7. emakumia izan nintzonan ni. Baiña handik 6 bat urtera ama gaixotu eta etxian geratu bihar izan ñonan etxekolanen kargu, baiña, arratsaldetan, ordu pare bat edo, jostiar be ekiñ nintzanan.

**- Nun ikasi zebein josten?**

Lehenengo Oñatin ibilli nintzonan, Petra joskiñanian, baiña gero pariente baten umia zainketara Mondrauera fan bihar izan ñonan eta han be ahal zanian sastrerixa batera bialketan nainxonain.

**- Jaiegunetan dantzen edo, egingo zebein horregatio!**

Bai horixe, gogotik gaiñera. Baiña kalia etzonan domekero musikarik egoten; San Pedroko zelaixan bai, eta hara faten gintzonan *baltsiuan* egittera, erdi ezkutuan, pulpittotik kondenu egitten xonain eta.

**- Kalia etzan musikarik egoten?**

Korpusetan eta jai haundittan bai. Gero, Santos Etxeberria alkate zala, domeka batian bai eta bestian ez ipiñ xonain plazan musikia.

**Umerez**

**Iturgintza • Berogailuak • Bainu altzariak**

Arantzazu, 21 behea • OÑATI • Tfnoa: 71 62 00

Baiña eurixa egitten ebenian, pul-tza-pultzaka ibiltten gintzonan arkupe-tan dantzarik egin ezindda; horregatik, herriko neska-mutillak alkartuta, agua-zillaren bittartez, eskatu gitxanan alka-tiari berdura-plazan musikia ipinttia, eta ondo portau zonan alkatori.

**- Txoritxo batek esan dosku an-zerkixa egitten ibillita zagozela...**

Bai, hori be egindakua naun. Orduan Txikitonian eguen Batzokixa inddarketako edo, euskeraz makiñatxo bat teatro egin giñonan. *Uste diñat, ya lo creo* zonan obra baten titulua eta orainddiok goguan xakonat erdera mondroulluan botatia tokau xatenak.

**- Gerra aurrian izango zan hori?**

Bai horixe; gerriak enredauta itxi gitxonan danok. Gure etxian be, aitta gaixorik, anaia eta ni geratu gintzonan; bestiok botua emun osteinari seg-iterra fan zittunan. Orduan joste-ko lanak be gastauta, Lukas anaia fruterixia ipiñi xonan eta ni berari lagunketan hasi nin-tzonan.

**- Peskaderixia zalakuan gegontzen...**

Hori geruago izan zonan; fru-terixia Kale zaharrian xagonan eta han esnia be saltzen giñonan. Peskaderixia, barriz, berdura-plazan, puesto eta guzti, baiña kalez-kale be ibil-tten gintzonan Lukas eta bixok peska txikiñarekin.

**- Zer dala eta jare zotzain peskia saltzeiari?**

Urte mordua peska-saltzen jardun-da gero, belaunetatik hondatu nintzo-nan eta izotzaz ez ibilteko esan xosta-

**M** Mondrauen egon nintzan garaixan, muti-llak "hori moja dok, hi" esaten txanain alkarri, ni azke-nengo piezia akabo ahalaz

*bat mutillarekin zinera fan biharrian, etxera, umezain, alde egitten nebelako.*



nain; Lukas be zahartu egin zona Orduan *Loyola* txokolate-fabrikana nintzonan. Han be beratzi bat urte eg nitxonan.

**- Ha izan zan azkenengo lana?**

Bueno, gero barriz be umezain, illo-ben umiekin eta.

**- Eztozu ezkonketako astirik b hartu!**

Nahikua gizon ñakonan nik etxiar sei, eta zela ekarri ba zazpigarrena. Gaiñera orain gauzak ettun lehengo modura, orain alkilerrian be hartzer don gizona.

**- Alkilerrian?**

Berez hil arte ez behintzat Lehenago, ezkondu ezkeror berez hil arte, gizon batekin orain etxagon holako konturik Rebistatan be ikusten don artistak eta, samur asko aldaketan daueilla gizona. Dana dala, etxatan hori larregi gustaitten, bakoitzari bere itxuria emun bihar xakon.

**-Ondo enterauta zagoz!**

Bai, ahalegiñak egitten txo-nagu, etxe inguruan ibilli arren, telebisiñua, radixua, rebistak, horreik danok gustaitten xatan eta herriko barrixak be irakurten txonat hillero.

*Pasau barri diran San Anton kaleko jaixetan, auzoko emakume zaharrena izatiagatik, aurt-en be erramu-sortia jaso dau Axu-nek. Igaz ataratako argazkixa.*

**BITTOR**

**ALTZARIAK**

Proiektu bidez etxerako altzari guztiak

San Lorenzo, 1 eta 41. OÑATI  
Tfnoak: 78 16 08 eta 78 34 21. Faxes: 78 34 21

**FAGOR**



Sukalde eta elektragailuak

**ARANBYRY**

Pintura orokorrean

Garbidenda

Paper margotuak

Koadroetako marko denda

Kale Barria, 47. Tfnoa: 78 19 99 OÑATI